

DEUSTUKO HERRI KROSA-REN III. EDIZIOA - ARAUDIA

1-ANTOLAKETA

Munabi Kirol Klubak 2023ko martxoaren 25ean ospatuko den Deustuko Herri Krosaren III. edizioa antolatuko du Deustuko Jai Batzordearen laguntzarekin batera.

2-PARTE-HARTZEA

16 urte baino gehiago izanda, araudi hau onartu, eta izena behar bezala eman duten guztiek parte hartu ahal izango dute.

3-IZENA EMATEA

Izena emateko aukera zabalik egongo da martxoaren 24ko gaueko 22:00ak arte honako helbide honetan: www.kirolprobak.com

Izena emandakoek hilaren 21eko 22:00ak arte, dortsalak eskuratu ahal izango dituzte "Intersport Bilbao" dendan, Jon Arrospide kalean, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 20:30era. Hilaren 21az geroztik egin dutenek, berriz, lasterketaren egunean bertan bakarrik jaso ahal izango dute dortsala, bai irteera-gunean, bai helmugan.

Umeek egunean bertan eman beharko dute izena lasterketa hasi baino ordu bat lehenago.

4-LASTERKETAREN HASIERA

Senior kategoriako lasterketari hasiera emango zaio arratsaldeko 17:00etan.

5-KATEGORIAK

Senior: 16-40 urte.

A Beteranoak: 41-50 urte.

B Beteranoak: 51 urte baino gehiago.

6-LASTERKETAREN KRONOMETRAJEA

KIROLPROBAK arduratuko da lasterketan egiten diren denborez. Emaitzak www.kirolprobak.com web-orrian argitaratuko dira.

7-ESKOLA-LASTERKETAK

ESKOLA-LASTERKETAK

18:00etan	2008-2010 urteak	1500 metro
18:10ean	2011-2012 urteak	1000 metro
18:20an	2013-2014 urteak	700 metro
18:30ean	2015-2016 urteak	400 metro
18:40an	2017-2018 urteak	250 metro
18:50ean	2019-2021 urteak	150 metro

Umeek 1. dortsalarekin korrika egingo dute, eta ez da sailkapenik egongo, ezta saririk ere lehenengo sailkatuentzat. Denek jasoko dute korrikalariaren poltsa.

8-ARDURAK

Lasterketaren antolakuntzak ez du bere gain hartzen proban gerta litezkeen istripuen erantzukizuna. Parte-hartzaile guztiak erantzukizun zibileko aseguru baten babespean egongo dira.

9-LARRIALDIETAKO LAGUNTZA MEDIKOA ETA ERREPIDEAK MOZTEA

DYA-k bere laguntza-zerbitzuak eskainiko ditu proba honetan. Era berean, Bilboko Udaltzaingoak errepidea moztuko du, baita lasterketa ireki eta ixteko lanak ere.

10-IRABAZLEENTZAKO SARIAK

Sari-banaketa 17:45ean izango da, umeen lasterketari ekin aurretik.

Sariak kategoriak:

- Senior (16-40 urte)
Lehenengo hiru emakumeak
Lehenengo hiru gizonak
- A Beteranoak (41-50 urte)
Lehenengo hiru emakumeak
Lehenengo hiru gizonak
- B Beteranoak (51 urte baino gehiago)
Lehenengo hiru emakumeak
Lehenengo hiru gizonak

11-OHIKO SARIAK

Parte-hartzaile guztiek korrikalariaren poltsa jasotzeaz gain, babesleen hainbat produktuz osatua, helmugan azken hornidura bat ere izango dute indarberritzeko.

12-DUTXAK

Dutxa-zerbitzua izango da Deustuko kiroldegian, helmugatik 100 metrora dagoena. Horretarako, ezinbestekoa izango da dortsalarekin sartzea.

13-IBILBIDEA

Irteera Botikazar Erribera kalean egongo da, 26 zenbakiaren parean, Unibertsitateak etorbidearen noranzkoan. Jarraian, Heliodoro de la Torre kalean ezkerretara joko dugu. Blas de Otero kalean ere ezkerretara joango gara, eta kalean zehar jarraituko dugu Julio Urkixo kaleraino iritsi arte. Azken honetan, eskuinetara egingo dugu kalean gora, eta Madariaga etorbidean ere eskuinetara joko dugu. Kalean gora jarraituko dugu, eta Rafaela Ybarra kalean amaituko dugu. Bertan, eskuinetara egingo dugu kalean behera, eta Blas de Otero hartuko dugu berrira. Azken honetan jarraituko dugu, Iruña kalera iritsi arte. Gero, ezkerretara abiatuko gara, eta Botikazar kalera helduko gara. Ondoren, kalea zeharkatu egingo dugu, eta Euskalduna zubia igoko dugu. Horren aurretik igaro egingo gara, eta Abandoibarra etorbideko bidegorritik jarraituko dugu Guggenheim museoan dauden ur-zurruzten gunera heldu arte. Plaza zeharkatu, eta Evaristo Txurruka kairantz abiatu egingo gara. Bertan, itsasadarraren ondoan, Ramon de la Sota kaira joango gara. Han, bi kaiak inguratu eta gero, Euskaldunara itzuliko gara leku beretik. Eraikinaren

aurretik igarota, Euskalduna zubira iritsiko gara berriro ere. Zubian behera Botikazar parkera iritsiko gara, helmuga dagoen tokia, alegia.

14-IRUDI-ESKUBIDEAK

Araudi hau onartzeak esan nahi du parte-hartzaileak baimena ematen diola antolakuntzari lasterketa barruan ateratzen diren argazki edo irudi guztiak zabaltzeko, komertzialki ustiatzeko eta iragarkiak egiteko. Halaber, irudi horiek argi eta garbi identifikatzeko modukoak direnean, ez du eskubiderik izango inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko.

Antolakuntzak ekitaldiaren irudiaren gaineko eskubidea gordetzen du, baita lehiaketaren ikus-entzunezko, argazki eta kazetaritza ustiapena ere. Horren helburu nagusia irudi batzuk ekitaldiaren web-orrian argitaratzea izango da. Era berean, edozein hedabide edo iragarki proiektuk antolakuntzaren berariazko eta idatzizko baimena eduki beharko du aldez aurretik. Bestela, egokitzen jotzen diren legezko ekintza guztiak abiaraziko dira.

15- DATU-BABESA

Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, jakinarazten dizugu ematen diren datuak fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Fitxategi hori emaitzak ohiko bitartekoen bidez argitaratzeko erabiliko da. Adibidez: web-orrian, prentsan, irratan eta telebistan argitaratzea.